



GOBIERNO
DE ESPAÑA

GOBERNUAREN
ORDEZKARITZA
EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOAN

GOBERNUAREN
ORDEZKARIORETZA
GIPUZKOAN

Gobernuaren Ordezkariordeztza Gipuzkoan

Zerbitzu
Gutuna
2018-2020



Ingurumena zain ezazu. Ez inprimatu ezinbestekoa ez bada.

Argitaratzen du: PRA
NIPO: 785-18-027-5

INDIZEA

AURKEZPENA.....	3
IDENTIFIKAZIO-DATUAK ETA HELBURUAK.....	4
ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUEN ZERRENDA	5
HERRITARRENTZAKO INFORMAZIO ETA ARRETA BULEGOA.....	5
ARAU-HAUSTE ETA ZIGOR ADMINISTRATIBOAK.....	7
BAIMEN ADMINISTRATIBOAK.....	8
NAHITAEZKO DESJABETZAREN EPAIMAHAI PROBINTZIALA	8
HERRI-BABESA.....	9
EMAKUMEARENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO UNITATEA.....	9
OSASUNA.....	10
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	11
INDUSTRIA.....	11
SUSTAPENA	12
LANA	13
ATZERRITARREN BULEGOA.....	13
INSTITUTU GEOGRAFIKO NAZIONALEKO LURRALDE UNITATEA (IGN)	14
HERRITARREN ESKUBIDEAK	16
HERRITAR ETA ERABILTZAILEEN PARTE HARTZEA.....	18
KEXA ETA IRADOKIZUNAK	19
ZERBITZUAK ARAUTZEN DITUEN OINARRIZKO ARAUTEGIA	20
ESKAINITAKO KALITATE KONPROMISOAK	29
ESKAINITAKO ZERBITZUEN KALITATE MAILAREN ADIERAZLEAK.....	29
ZUZENTZE NEURRIAK AITORTURIKO KONPROMISOAK BETETZEN EZ BADIRA.....	31
ZERBITZURA IRISTEA ERRAZTU ETA PRESTAZIOEN BALDINTZAK HOBETZEN DITUZTEN SEXU- BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNA BERMATZEN DITUZTEN NEURRIAK.....	32
KALITATEA, INGURUMENAREN BABESA ETA LAN SEGURTASUNA BERMATZEKO SISTEMAK	34
POSTA HELBIDEAK, ETA ELEKTRONIKOAK.....	36
TELEFONOAK.....	37
SARBIDE ETA GARRAIOBIDEAK	38
GUTUNAREN UNITATE ARDURADUNAREN IDENTIFIKAZIO ETA HELBIDEA	39

AURKEZPENA


Herritarren zerbitzua da Espainiako geografia osatzen duten probintzia ezberdinetako Gobernuaren Ordezkariordezen helburua eta zerbitzu honen kalitatea etengabe hobetzea da beraien langile eta arduradunen ahalegina.

Zerbitzuen Gutunak, Presidentetzaren eta Lurralde Administrazioetarako Ministerioak, administrazio zerbitzuen kalitatea hobetzeko duen plangintzaren barruan sustatu dituen eboluzio-jardueren taldean integratuta daude, Administrazio berri bat eraikitzeke helburuaz, eraginkortasun, efizientzia, gardentasun eta herritarrekiko zerbitzu eragileko oinarri funtzionalek zuzendua, beraeuk erabakien erdian kokatzen dituen.

Zentzu honetan, azpimarratzekoa da honako hauek, Administrazio Unitateen kalitate konpromisoak eta hobetzeko ahaleginak zeintzuk diren herritarren artean zabaltzeko duten funtsezko zeregina.

Premisa honetatik, emandako zerbitzuez jaso dituzuen alderdi on edo txarrei buruz egiten dizkiguzuen iruzkinek, zerbitzuari buruzko zuen eskaera eta itxaropenei gure prestazioak egokitzen lagunduko dute.

Zure arreta eskertzen dugu eta agiri hau erabilgarri izan dakizun espero dugu.



IDENTIFIKAZIO-DATUAK ETA HELBURUAK

Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztza, Presidentetzaren eta Lurralde Administrazioetarako Ministerioari organikoki atxikita dagoen administrazio unitate bat da.

Administrazio unitate honen aginpide nagusia, lurraldearen esparruan, Sektore Publikoko Erregimen Juridikoari buruzko urriak 1eko 40/2015 Legeak agintzen dizkion funtzio guztiak kudeatzea da, Estatuaren Administrazio Orokorraren gainontzeko erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzuak koordinatuz, ikuskatuz eta hobetzeko ekimenak sustatuz.

Halaber, organo honi Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren toki entitateekiko eta toki erakundeekiko komunikazio, elkarlan eta lankidetzaren funtzioak ere badagozkie.

Gutun honen oinarritzko helburua, herritarrari, Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztzak ematen dituen zerbitzu guztiak erakustea da, horretarako aginpidedun unitateak ezagutzea, erabiltzaileei beraien eskubideen berri eman eta onartutako kalitatezko konpromisoak aurkeztea.

Dokumentu hau, probintziako herritar eta langile publikoentzat ondorengo aurkezpenak oinarrituko diren iturria da, halaber informazio nabariena eta Gutun honen eduki garrantzitsuenak jasoko dituen zerbitzuen katalogo bat duen triptiko baten bidez.



ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUEN ZERRENDA

Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztatik, honako zerbitzu hauek ematen zaizkio herritarrari:

HERRITARRENTZAKO INFORMAZIO ETA ARRETA BULEGOA

Aurrez aurreko informazioa, telefonikoa, idatzia eta elektronikoa honako honi buruz:

- Estatuko Administrazio Orokorra: egitura organikoa eta eginkizunak.
- Estatuko oinarrizko legedia.
- Estatuko Administrazio Orokorraren indarreko prozedurak.
- Herri Administrazioetako organoen eta beraien informazio bulegoetako helbide eta telefonoak.
- Estatuko Administrazio Orokorrak argitaratutako zerbitzuen Gutunak.
- Estatuko Administrazio Orokorraren lan eskaintza publikoak eta eskabideen banaketa.
- Herri Administrazioen laguntza, diru-laguntza, sari eta bekei buruzko informazioa.
- Estatuko Administrazio Orokorraren argitalpenak.
- Estatuko Aldizkari Ofizialaren, probintziakoaren eta Europar Batasunaren Egunkari Ofizialaren kontsulta.
- Dokumentuak legeztatzeari buruzko informazioa (Hayako Hitzarmena).
- Tasen informazio eta izapideak, ziurtagiri penalak eta azken borondateak.
- Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztan izapidetzen diren prozedurak.
- Atzerriko tituluaren homologazioa.
- Zinpeko Itzultzaile-Interpretearen Tituluaren izapidetzea eta ematea.
- IMSERSOrekin Hirugarren Adinekoen Opor eta Ur Termaletako Programarako eskabideen izapidetzean elkarlana.
- Dokumentazioaren hartzea eta erregistroa, bizilekuagatik espainiar herritartasuna eskuratzeko.

Dokumentuen erregistroa:

- Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztara zuzendutako eskaera, idatzi eta jakinarazpenak.
- Herri Administrazioetako edozein Organotara zuzendutako eskaera eta idatziak eta beraien bidalketa.
- Interesdunei unibertsitate tituluak eta egiaztagiriak ematea.

- Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalak egindako ziurtagirien erregistroak, 2CA mota, pertsona fisikoentzat.
- @CLAVE sisteman altaren erregistroa.

Datozen dokumentuak egitea:

Aurkeztutako eskaera eta idatziei dagozkien frogagiriak, bai eta, behar denean, eskabide horiei erantzen zaizkien dokumentuen konpultsa ere.

Eskaera eta idatziei erantsita doazen jatorrizko dokumentuen zigilatutako kopiak.

ARAU-HAUSTE ETA ZIGOR ADMINISTRATIBOAK

Espediente zigortzaileak gai hauetan izapidetzea:

1. Armak

- Arauzko armen fabrikazio, konponketa, biltegiatze, zirkulazio, salerosketa, garraio, banatze, erosceta, egiaztapen edo besterentze kontuetan arau-haustek, aplikazio araudia ez betez, eskatutako dokumentazio edo baimena ez edukiz edo baimendutako mugak gaindituz.
- Arau-haustek edukitze, erabilera, zaintze eta/edo armen kontserbazio kontuetan eta objektu arriskutsuen erakusketa pertsonen segurtasun fisikorako larzeria eragiteko helburuarekin.
- Arauzko armek eskatzen duten dokumentazioa ez edukitzeagatik arau-haustek, armak galtzeagatik, arduragabekeriagatik edo berauen kontserbaziorako neurrien eskasia edo ahazteagatik.
- Debekatutako armen salerosketa, edukitze eta publizitateagatik arau-haustek.
- Artikulu pirotekniko eta kartutxerien kontuetan arau-hauste larri eta arinak.

2. Drogak

- Zigorra, legez kontra edukitzeagatik eta droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psicotropikoak, toki, bide, establezimendu edo garraio publikoetako kontsumoagatik.
- Jendurrean ikusgai den lekuetan droga toxiko, estupefaziante edo substantzia psicotropikoen legez kontrako labore eta landaketa ekintzen gauzateagatik zigorra.
- Ohitura kentzeko tratamendua hasteagatik, drogak legez kontra edukitzeagatik edo kontsumo publikoagatik adin txikikoei ezarritako zigoren etenaldia.
- Lokal edo establezimendu publikoetan substantzia toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psicotropikoen legez kanpoko kontsumo edo salerosketarekiko tolerantzia jokaerengatik edo arduradunen aldetik berau ez oztopatzeko prestutasun gabeziagatik.

3. Herritarren segurtasuna

- Bide, espazio edo establezimendu publikoetan desordena larriak eragindako jokaerengatik arau-haustek, edo herri erabilera ondasei kalteak eragindakoak edo segurtasun kolektiboa aldatzean dautzanak edo bide, espazio edo establezimendu publikoetan desordenak eragindakoak, edo jendartearengan herritarren segurtasuna alda dezaketen erreakzioen probokazioa halaber desobedientzia eta errespetu falta agintariei eta bere agenteei.
- Herritarren segurtasunerako garrantzia duten jardueratan eskaturiko miaketa ezagatik hala nola: ostalua, erabilitako gauzen merkataritza edo konponketa, motordun ibilgailuen alokairu edo desegitea, bitxi eta metal preziatuen salerosketa, pertsonen garraioa, segurtasun sarrailagintza eta produktu kimikoen salmenta partikularrei.
- Agiri pertsonalak lortzeko egin beharra ez betetzeagatik edo hau emateari uko egiteagatik, bere kentze edo atxikitzea erabakita zegoenean.
- Halaber zigortzen dira bilera eta manifestaldi eskubidearen muga gainditzen duten jokaerak, baita oinarrizko eskubide honen jardutearen asaldatzea ere delitu ez direnean.
- Agintariei eta bere agenteei bere funtzioen legezko jardutea eragozten dieten arau-haustek, baita larrialdi zerbitzuei ere.

- Ordena publikoaren nahasmenduak, Segurtasun-Indar eta Kidegoetako kideenganako errespetu faltak, ondasun zehatz batzuen histua bide publikoetan, animalia arriskutsuak aske utzi edo eraikin edo monumentuak igotzea, inoren higiezin, etxebizitza edo eraikina hartzea, edo beraietan egotea, bere jabearen, maizter edo beraren gaineko beste eskubide baten jabearen borondatez kontra, arau-hauste penala ez denean.
- Baita zigortzen dira ere pertsonen sexu- askatasunaren aurkako erasoak, bereziki adinez txikiak.

4. Segurtasun pribatua

- Segurtasun enpresen, segurtasun langileen eta segurtasun zerbitzuen erabiltzaileen segurtasun pribatuaren araudiarekiko arau-haustekak.

BAIMEN ADMINISTRATIBOAK

Hurrengo espedienteen bideratzea:

1. Armak

- “E” motako arma-lizentzien baliogabetze eta ukapena. Lizentzia hauen emateak Komandantzia desberdinetako Guardia Zibilaren agintariengan eskuordetuta daude.
- “AE” armen erabileraren baimen, ukapen eta baliogabetzea.
- Polizia eta Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusira zuzenduriko “B” motako arma-lizentzien txostenak.
- Behar bezala baimenduriko tiro-eremu, edo galerietatik kanpo gertatzen diren su-armekiko jardueren baimena.

2. Segurtasun pribatua

- Segurtasun zerbitzua emateko baimena su-arma duten segurtasun zaintzaileen bidez
- Armazainak onartzea armadun segurtasun zaintzaileek zerbitzua ematen duten lekuetan
- Industrialde eta urbanizazioetan zaintza zerbitzuak emateko baimena.
- Segurtasun Zaintzaileak baimendu Espazio Publikoetan.
- Bideozaintzarako baimenak
- Titulua gaitu ahal izateko bere garaian Ordezkaritzan zin egin zuten Zinpeko Segurtasun Zaintzaile ziurtagirien-emisioa.

NAHITAEZKO DESJABETZAREN EPAIMAHAI PROBINTZIALA

Magistratu bat buru duen izaera administratiboko erakunde kolegiatu honek, Herri Administrazio desberdinek, herri-onura edo interes sozialagatik, nahitaezko desjabetzaren helburu diren ondasunen, zeintzuetan ez den lortu akordioa alderdien artean kalte-ordainari buruz, balio justua zehazteko eremu inpartzialeko funtzioa betetzen du.

Funtzio orokorrak dira:

- Estatuko Administrazio Orokorrak igorritako balio justuko espedienteen bideratze eta ebazpena.

- Delako ebazpenen aurka jarritako berraztertze errekurtsoen bideratze eta ebazpena.
- Balio justuko espediente osatzen duen dokumentazioaren prestaketa indexatua eta beraren igorpena Justizia Auzitegi Nagusira administrazioarekiko auzi- errekurtsoak jartzearen aurrean Epaimahaiaren ebazpenen aurka, halaber beraien akordioen geroko gauzatzea.
- Alde batek eskatuta, ezarritako legezko epea gaindituz balio justuko espediente baten ebazpen bidez Epaimahaiari egozgarri zaizkion atzerapen interesen espedienteen bideratze eta igorpena, bere azterketa eta ebazpenerako Finantza-Administrazioko Zuzendariorde Nagusia.

HERRI-BABESA

- Unitate honek helburu gisa bere eskumen eremuaren barnean Herri-Babeseko Sistema Nazionalaren hurrengo jarduketak ditu: aurreratzea, herri-babeseko arriskuen prebentzioa, planifikazioa, berehalako erantzuna larrialdiei, berreskuratzea, eta interes nazionaleko larrialdiak:
- Herri- babeseko jarduketa protokolo eta planen lanketa, eguneratzea eta kudeaketa uholde, baso-sute, erradiologiko, bolkaniko, sismiko, kimiko, aire-istripu, itsas kutsadura, itsasikara, errepidezko salgai arriskutsuen garraio istripu, substantzia arriskutsuak parte hartzen duten istripu larrien arriskueta.
- Informazio eta aholkularitza herri- babes eta larrialdi kontuetan.
- Estatuko larrialdien plangintza eta kudeaketa.
- Lurraldeetako larrialdien kudeaketa lankidetzatoki erakunde eta autonomikoekin.
- Larrialdi edo hondamenezko izaera duten egoeretatik ondorioztutako behar zehatz batzuk kontuan hartuta diru-laguntzei buruzko informazioa.
- Diru-laguntzei buruzko eskaeren izapide eta kudeaketa.
- Hegazkintza zibileko istripuen biktima eta bere senideen arretarako Bitarteko Pertsonaren funtzioen plangintza, koordinazio, kudeaketa, prestakuntza eta zabalkunde jarduketak.
- Barne Ministeritzaren Herri- Babeseko Zuzendaritza Nagusiaren Larrialdietarako Irrati Sarearen kolaboratzaileei egiaztagiriak ematea.
- Larrialdietarako Irrati Sarearen (LIS) lurraldeko egituraketa eta kudeaketa.
- Ingurune-Erradioaktibitatearen segimendu eta neurketa.
- Herri- babes kontuetan eskudun diren organo kolegiatueta erakundeen parte-hartzea.
- Zerrendaturiko arriskuen kudeaketari dagokionez prestakuntza eta zabalkunde ekintzen garapena.

EMAKUMEAREN ANAKO INDARKERIAREN AURKAKO UNITATEA

- Unitate honek ez du emakume biktimgenganako arreta zuzeneko zerbitzurik, baizik eta Erkidego Autonomoan dauden zerbitzuei buruz informatzeaz arduratzen da eta emakume hauek ezarritako Zerbitzuetan behar bezala hartuak izateko kudeaketak egiteaz. Funtzio nagusiak dira:
- Arrisku egoeran dauden emakumeak babesteko informazio eta baliabideak zein banakako jarraipenak egiteko aukerak koordinatzea.
- Genero-indarkeriaren biktimei babes integrala sustatzea, babes honetara bideratutako Autonomia Erkidegoan funtzionatzen duten baliabideak eta ahultasun handieneko profilak identifikatuz.

- Genero-indarkeriako egoeren jarraipena, bereziki arriskurik handienetakotzat jotzen direnak, ahultasun handieneko profilak, berriro elkarbizitzen hasi direla ziur jakiten denean edo kautelazko neurri bat ondorioz gabe uzten denean eta, Genero-Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritzak jakinaraziak.
- Emakumeen aurkako beste indarkeria era batzuetako eremuko funtzioak (emakumezkoen mutilazio genitala, beharturiko ezkontzak, emakumeen salerosketa sexualki esplotatzeko e.a)
- Genero-indarkeriaren eta erakundeen erantzunari buruz aldizkako jarraipen txostenak.
- Erakunde arteko koordinazioa.
- Esplotazio sexualerako emakumezkoen salerosketa egoerei laguntza emateko Estatuko Administrazio Orokorraren baliabide eta zerbitzuen jarraipena.
- Sentsibilizazio kanpainak eta prestakuntza ikastaroetan parte hartzea eta antolatzea.
- Profesionalen prestakuntza eta espezializazioan sustapen eta lankidetzak.
- Genero-indarkeriarengatik hildakoei buruzko jarduketak (emakume eta/edo seme-alabak) halaber larriki zaurituei.

OSASUNA

Bulego honek dagokion lurralde eremutik txostenak izapidetu, landu, jarduketa teknikoak eta zerbitzu integratuen gainerako jarduerak gauzatu dituzte, abuztuaren 1eko 1330/1997 E.D-ari jarraituz. Zerbitzuak:

Jarduerak osasunarentzako arrisku posibleen zaintza eta kontrol kontuetan bidaiarien nazioarteko garraiotik eta nazioarteko garraiobideetatik ondorioztatutakoak:

- Osasun aholkuak nazioarteko bidaiariei eta txertoen emate/gomendioa. OMEren Nazioarteko Txertaketa Ziurtagiria.
- Kontrol higieniko-sanitarioak: Pasaiaiko eta Bilboko portuetan nazioarteko garraiobideen kontrol eta zaintza.
- Hileta-Osasun Polizia: hilotzen nazioarteko lekualdaketa eta gorpuzkien kontrol eta zaintza.
- Nazioarteko Osasun Araudiaren ezarpena.
- Tasen kudeaketa: txertaketa eta kontrol higieniko-sanitarioak nazioarteko garraiobideei.

Jarduerak osasunarentzako arrisku posibleen zaintza eta kontrol kontuetan salgaien inportazio, exportazio edo zirkulaziotik ondorioztatutakoak:

- Salgaien osasun kontroleko muga-instalazioen kontrol eta zaintza higieniko-sanitarioa.
- Osasun kontroleko muga-instalazioen baimenen izapidea: MIP, Prestaturiko Aduana Esparruak (PAE) eta itsas hornikuntzarako zamategiak.
- Inportazio, exportazio eta nazioarteko trafikoan elikagaien indarreko arau tekniko-sanitarioetan ezarritako baldintzen betetzea eta baldintza higieniko-sanitarioen kontrola, ikuskapena.
- Ziurtagirien bidalketa eta osasun informazioa.
- SISAEX IV eta TRACES aplikazioetan alta-baimenaren kudeaketa operadore ekonomikoei.
- Sendagai, osasun produktu eta kosmetikoen industria fabrikatzaile edo inportatzaileei, funtzionamendu, aldaketa eta/edo berrespen lizentziak emateko ikuskapena.

- Sendagai, osasun produktu, kosmetiko eta bioziden inportazioari osasun kontrola.
- Sendagai, osasun produktu, kosmetiko eta bioziden exportazioari osasun kontrola.

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA

- Areto/Bulego hauek datozen funtzioak betetzen dituzte: haien zerbitzu integratuetako txostenak, jarduketa teknikoak eta bestelako lanak, dagozkien lurralde eremuetan abuztuaren 1eko 1330/1997 E.D.ari jarraituz. Zerbitzuak:
- Landare eta animalien osasuneko exportazio eta inportazioen kontrol eta ziurtagiria.
- Animalia jatorrizko produktuen albaitari-kontrolen gaineko 080 tasen kontrol eta egiaztatzea.
- Exportaziorako kanal eta haragien jatorriaren ziurtagiria.
- Behartsuenei Elikadura Laguntza Programaren kontrol eta jarraipena.
- Elikadura kanpainen kontrol eta jarraipena.
- Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak diruz lagundutako landa-inguruneko pertsonentzako ikastaroen ziurtagiriak.
- Elikagaiak hartzeko programen akten kontrol eta idazketa.
- Ustiaketak berritzeko kontrolak eta instalaziorako laguntzen kontrola nekazari gazteei.
- Zerbitzu agronomikoen kudeaketa tekniko-eskumenekoa eta buletinen ematea (055 Tasa).
- Nekazaritza-aseguruak.
- Eraikuntza berriko itsasontziek egindako arrantza frogaren kontrola.
- Base aldaketak autonomia-erkidego bereko edo desberdineko portuen artean.
- Ontzi irati-telefonista eta murrizturiko Ontzi irati-telefonistaren txartel profesionalaren bidaltzea.
- Arrantza tresnen azterketa ziurtagiriak.
- Arrantza-ontzien baja konpromisoen sinadura.
- Itsas-arrantzako arau-hausteengatiko espediente zigortzaileen izapidaketa.
- Arrantzarako lizentzia eta baimen bereziak.
- Babesturiko espezieen arrantzarako eta lehiaketa eta txapelketatarako baimenak.
- Arrantza sektorearen langileekiko prestakuntza ikastaroen jarraipen eta ebaluaketa.
- Arrantza-ontzien desegitearen egiaztatzea.
- Arrantza-flota operatiboaren erroldan alta eskaeren izapidaketa.
- Egurrezko kroskoa duten ontzien hondoratze ziurtagiria.
- Behin-behineko baja egoeran dauden ontzien berraktibatzea.

INDUSTRIA

Azpiegitura industrial eta energetikoetan estatuko eskumenari lotutako espedienteak izapidea:

- Gasbide eta oliobideetako eta energia elektrikoko produkzio eta garraiorako instalazio elektrikoekiko Nahitaezko desjabetze eta/edo bide zorren espedienteen egitea.

- Gasbide eta oliobideetako, zentral elektrikoetako, azpiestazioetako eta energia elektrikoa garraiatzeko lineetako proiektuen onarpen eta herri-onuraren aitorpen eta baimenen espediente eta txostenen egitea.
- Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztan izapidetutako gasbide, oliobide eta instalazio elektrikoaren martxan jartzearen baimena.
- Aldi baterako/ohiko kontsumitzaile eta lehergailuen gordailuetako espedienteetan txosten teknikoaren idaztea.
- Lehergailuen fabrika, gordailu eta bolborategi osagarrien martxan jartze eta baimena.
- Leherketa berezien enpresen erregistro eta baimena.
- Gai pirotekniko eta su artifizialak saltzen dituzten establezimendu eta tailerren baimen ikuskaritzen eta espedienteen izapideen eta txostenen egitea.
- Industria, Energia eta Agenda Digitalaren Ministerioak emandako dirulaguntzen egiaztapen eta ikuskaritza.
- Armategi, tiro-eremu eta tiro-galerien irekitzea baimentzeko txostena.
- Artillari eta artillari laguntzaileen libreten jaulkitzea.
- Lehergailuen kontsumitzaileak diren enpreseei lehergailuak hornitzearen baimena.
- Gobernuaren Ordezkariek ebazten dituen su artifizialen jendaurreko ikuskizunetarako baimenei buruzko espediente eta txostenen egitea.
- Piroteknikari aditu eta laguntzaileen agirien egitea.
- Baimen administratiboaren informazio, izapide eta jarraipena eta egite proiektuaren onarpena, eraikitze, modifikazio, banaketako instalazioen handitze, garraio eta sortzeko estatu-eskumeneko energia elektrikoa.
- Estatu-eskumeneko instalazio elektronikoaren itxierako eta Titulartasunaren eskualdatzeko baimenen jarraipen izapide eta informazioa.
- Estatu-eskumeneko instalazio elektrikoaren Herri-Onuraren Aitorpenaren izapidea.
- Estatu-eskumeneko instalazio elektrikoaren eraikitze, aldaketa eta handitzearen ingurumen-eragineko ebaluaketako prozeduraren jarraipen, izapide eta informazioa. Ingurumen-eragineko aitorpenaren betetzearen kontrola.
- Konfiskatu eta iraungitako lehergailu eta piroteknia-materialen suntsitzearen Txosten eta Baimena.
- Industria-erregistroko inprimakien ematea eta eskaeren igortzea. Jendearentzako informazioa.
- Zientifiko, tekniko, berrinberritze eta berrinberritze eta beste batzuen ikerketako laguntzen kontrol eta jarraipena.
- Estatu-eskumeneko Industria eta Energiako instalazio eta jardueren buruzko administrazio-tasen kobratzearen kudeaketa.

SUSTAPENA

Sustapen kontuetako eskumenak salgaien garraio eta bidaiarien garraioaren esparruan garatzen dira:

- Garraio txartel berrien ematea.
- Garraio txartel ikus-onetsiak

- Garraio txartelen bajak
- Garraio operadoreen txartel berriak.
- Garraio operadoreen txartel ikus-onetsia
- Hirugarren herrialdetako gidari ziurtagirien ematea
- EBeko Ibilbide -Orri-Liburu berdea agiriak.
- Europar Batasunekoak ez diren hirugarren herrialdetako garraiolarientzako Interbus agirien ematea.
- Garraio ziurtagirien ematea trafikorako.

LANA

18 abenduaren 2725/1998 Errege-Dekretuak ezarrita, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren Probintziako Zuzendaritzak Gobernuaren Ordezkaritzetan sartzeko dira. Berriki, Gobernuaren Ordezkaritzetan sartutako zenbait Arlo funtzional berregituratzen dituen uztailaren 23ko 942/2010 Errege-Dekretuak arau honen 2. eta 3. artikulua indargabetu ditu eta Gobernuaren Ordezkaritza bakoitzean Lan eta Immigrazio Arlo bat sortuko dela aurreikusten du, dagokion Gobernuaren Ordezkariordeztan integratzen diren probintziako bulegoetan antolatuta.

Funtzio nagusiak hauek dira:

- Emigrante itzuliaren ziurtagiriaren ematea.
- Izapide-aldiko soldatak eta beraien Gizarte Seguratasunari kotizazio-kuotetan Estatuak duen erantzukizuna ukatze edo aitortzea.
- Dagokien baimen administrazio bidez gabeko langile atzerritarren kontratazioen kasuetan arau-hausteko aktetatik eratorritako prozedura administratibo zigortzaileen Ebazpena.
- Nazio-esparruko lan kooperatiben sozietate liburuaren legeztatzea.
- "Lan Merezimenduaren Domina"ren ematearen izapidea.
- Ondare Sindikal Metatuko kudeaketan lankidetzak.
- Atzerritar langileen urteko kuotaren egoitza eta lan baimena.
- Enplegu-erregulazioko espedienteen izapidea funtzio hau Estatuko Administrazioari dagokion kasuetan.
- birmoldaketa prozesu eta/edo enpresen birregituratzeak eragiten dieten langileei Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren laguntzen kudeaketan lankidetzak.

ATZERRITARREN BULEGOA

Ematea edo ukatzea, Indarrean dagoen araudia betez:

- Norbere kontura eta Inoren konturako aldi baterako bizileku eta lanaren baimen eta berritzea.
- Nazioz gaindiko zerbitzuen prestazioen esparruan bizileku eta lanaren baimen eta berritzea.
- Ikerketarako bizileku eta lanaren baimen eta berritzea.
- Lanerako baimenak eta beraiekiko salbuespenak.
- Iraupen txikiko egonaldien luzapena.

- Familia berrelkartze eta irabazi-asmorik gabeko aldi baterako bizilekuko baimena.
- Errotzea eta beste ohiz kanpoko egoerak.
- Europar Batasuneko iraunaldi luzeko bizileku baimena.
- Ikasketengatiko, ikasleen lekualdatze, lanez kanpoko praktika edo borondatezko laneko zerbitzuen egonaldiko baimena eta baimen hori daukaten titularrei lan baimena ematea.
- Espainian atzerritarren egoeren aldaketak.
- Itzulerako baimenak.
- Adingabekoen bizileku baimena.
- Izen emate zedula eta bidaia txartela.
- Gobernu-txostenak (ikasketa bisa, tratamendu mediku eta adingabekoen oporretetarako).
- Nazioarteko semetzat/alabatzen hartzeko gobernu-txostenak.
- Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzko Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren arau-hauste larri edo oso larriak egiteagatik espediente zigortzaileen Ebazpenak.
- Lehenago zerrendaturiko izapideei buruz bezeroari arreta eta informazioa.

Emigrazio saila

- Emigrazioari arreta. Emigrante itzulien ziurtagiriaren jaulkipena. Emigrante itzulien diru-laguntzen kudeaketa eta informazioa.
- “Gerrako haurrak” 3/2005 Legearen prestazio ekonomikoen izapidea.
- (8/2008 Errege Dekretua) Espainiar itzulien aldeko zahartzaroaren kotizazio gabeko pentsioen eskaerako harrera eta informazioa. Aipatu prestazioen berritzeko urteko diru-sarreraren aitortpena eta bizi-agiria.
- Osasun laguntza: atzerrian besteren kontura lan egiten duten espainiar emigranteen eta bere kargura dituzten familiaren osasun laguntzaren eskubidearen izapidea.
- Espainian eta atzerrian osasun laguntzaren onuraren emigranteen eskubideei buruzko informazioa.
- Espainiar itzulien ohiz kanpoko premien egoerei erantzuteko zuzenduriko laguntzen izapidea (1493/2007 Errege Dekretua).
- Australiarekin Gazteen Mugikortasun Programarekin akordioaren 2 n) klausulan aurreikusitako Laguntza Gutunen eskaeren harrera eta informazioa.

INSTITUTU GEOGRAFIKO NAZIONALEKO LURRALDE UNITATEA (IGN)

IGNak Euskal Autonomia Erkidegoan daukan Unitatea Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordeztzara atxikituta dago. Honek azpiegitura zientifiko eta teknikoaren kudeaketa zuzenekoaren ekintza eta IGNaren zein Informazio Geografikoko Zentro Nazionalaren produktuak eta zerbitzuak herritarrei hurbiltzea ahalbidetzen du:

- Erakunde publiko zein pribatuei oinarritako informazio geografikoa ematea.
- Kartografia, Geodesia, Geofisika edo Astronomiari buruzko informazio geografikoaren gaineko laguntza teknikoak.

- Kartografia zabaltzeko ekintzen koordinatzea eta garatzea (ikastetxeetan, liburu-azoketan...)
- IGN-Autonomia Erkidegoaren hitzarmenearako jarraipen-batzordeetan parte hartzea.
- Lurralde mugaketak eta muga lerroen zuinketa. Datuen baseen eguneratzeko Autonomia Erkidegoarekiko koordinazioa.
- Serie nazionalako kartografiako, kartografia eratorritako, kartografia gaietako eta informazio geografikoko baseen eguneratzea.
- Sare sismikoaren eta geodesikoak eta nibelazioko sareen kontrolatzea eta mantentzea.
- Institutu Geografiko Nazionalaren eta Informazio Geografiko Zentro Nazionaleko produktuak merkaturatzea "Casa del Mapa"n.



HERRITARREN ESKUBIDEAK

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko 39/2015 Legeak herritarren eskubideak bi maila desberdinetan aitortzen ditu:

1. 39/2015 Legearen 13. Artikuluan jasotzen diren herri Administrazioekiko Pertsonen eskubideei dagokienez, hauek dira:

- a) Administrazioaren Sarbide Gune Orokor Elektroniko baten bidez Herri-Administrazioarekiko komunikazioa.
- b) Herri-Administrazioarekin beraien harremanetan bide elektronikoen erabileran lagundua izatea.
- c) Zure Autonomia Erkidearen lurraldean hizkuntza ofizialak erabiltzea, Lege honetan eta gainerako Ordenamendu Juridikoan aurreikusitakoaren arabera.
- d) Gardentasun, Informazio Publikorako Sarbide eta Gobernantza On eta gainerako Ordenamendu Juridikoaren abenduaren 9ko 19/2013ko Legean aurreikusitakoarekin Herri-Administrazioetako informazio publiko, artxibo eta erregistroetan sartzeara.
- e) Agintaritza eta enplegatutako publikoek begirunez hartzea.
- f) Legez hala dagokionean, Herri-Administrazio eta Agintaritzen erantzukizuna eskatzea.
- g) Lege honetan aurreikusten diren identifikazio eta sinadura elektronikoen baliabideen erabilpena eta lortzea.
- h) Izaera pertsonaleko datuen babestea, eta bereziki Herri-Administrazioen aplikazio, sistema eta fitxategietan dauden datuen konfidentzialtasuna eta segurtasuna.
- i) Konstituzio eta legeek aitortzen dizkieten beste zeinahi eskubide.

2. Bestalde, 39/2015 Lege horren 53. artikuluan, prozedura administratiboan interesdunaren eskubideak aitortzen diren hauek dira:


- a) Interesdunen baldintza duen prozeduretako izapideko egoera, edozein momentuan, jakitea; dagokion administrazio-isiltasun zentzua, Administrazioari dagokionez epean esanbidezko ebazpenik ez emanez ez jakinaraziz; beronen izapideak egiteko eskumena duen organoak, bere kasuan, eta ebazpena; eta emandako izapidearen egintzak. Halaber, aipatu prozeduretan dauden dokumentuen sartzeara eta kopia bat lortzeko eskubidea ere izango dute.
- b) Euskarri elektronikoen bidez Herri-Administrazioarekin harremanetan jartzen direnek, aurreko paragrafoak aipatzen dituen informazioa kontsultatu ahal izateko eskubidea izango dute, Administrazioaren Sarbide Orokor Elektronikoaren gunean zeina sarbide atari gisa erabiliko dena.
- c) Administrazio eskudunaren Sarbide Orokor Elektronikoaren gune edo dagokien egoitza elektronikoen bidez beraien eskura jartzearen bidez prozeduretan dauden agiritako kopiak

ematea Administrazioaren betebeharra beteta dagoela ulertuko da.

- d) Prozedurak izapidetzen diren bereauen ardurapean dauden agintaritza eta Herri-Administrazioen zerbitzura dauden langileak identifikatzea.
- e) Jatorrizko agiriak ez aurkeztea salbu, ez ohizko moduan, aplikagarri den araudi erregulatzailerak aurkakoa adierazten duen. Salbuespenez, jatorrizko agiriak aurkeztu beharko badituzte, beronen kopia autentifikatu bat lortzeko eskubidea izango dute.
- f) Ari den izapideari aplikagarri diren arauak eskatzen ez dituzten datu eta agirien ez aurkeztea, Herri-Administrazioen eskuetan daudenak edo beraiek eginak izan direnak.
- g) Alegazioak adieraztea, Ordenamendu Juridikoak onartutako defentsarako baliabideen erabilpena, eta prozeduraren edozein faseetan agiriak aurkeztea entzute izapidea baino lehen, ebazpen proposamena idaztean organo eskudunak kontuan hartu beharko direnak.
- h) Egin nahi diren proiektu, ekintza edo eskaerei indarrean dauden xedapenek ezartzen dizkien betekizun juridiko edo teknikoari buruzko informazio edo orientabidea lortzea.
- i) Aholkulari batek lagunduta aritzea beraien interesen defentsan egoki irizten dutenean.
- j) 98.2 artikuluan aurreikusten diren baliabide elektronikoen bidez ordainketa betebeharrak betetzea.
- k) Konstituzio eta legeak aitortzen dizkieten beste zeinahi eskubide.

3. aurreko atalean aurreikusitako eskubideaz gain, **izaera zigortzaile duten prozedura administratibo**en kasuan, ustezko erantzuleek jarraiko eskubideak izango dituzte:

- a) Egozten zaizkion gertaeren, halako gertaerek izan ditzaketen arau-hausteen eta, bere kasuan, ezar ziezazkioketen zigorren, halaber izapidegilearen nortasunaren, zigorra ezartzeko agintaritza eskudunaren eta delako eskumenak esleitzen duen arauaren jakinaraztea.
- b) Erantzukizun administratiboaren ez izatearen presuntzioa kontrakoa adierazten ez den bitartean.




HERRITAR ETA ERABILTZAILEEN

PARTE HARTZEA

Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordezaren zerbitzuen herritar eta erabiltzaileek prestazioaren hobekuntzan honela lagundu ahal izango dute:

- Egingo diren inkestetan bere iritziak azalduz, bere beharrak eta aukerak ezagutzeko.
- Kexa eta iradokizunen aurkezpena Gutun honetan aurreikusten denaren arabera.



EXA ETA IRADOKIZUNAK

Herritarrek zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko bere kexa eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte, uztailaren 29ko, 951/2005 E.D.-aren 15 artikulua xedatzen duenarekin bat etorriz, ondorengo baliabideen bitartez:

- Aurrez aurreko moduan, horretarako Ordezkariordeztza honen, Herritarraren Arretarako 060 Bulego Integratuan eskuragarri dituzten galdetegien bitartez.
- **Postaz:** Donostiako Pio XII Plaza, 6 zki.-a-20071 helbidera.
- **Posta elektronikoz,** ondorengo helbidera:
secretario_general.gipuzkoa@correo.gob.es
- **Egoitza elektronikora sartzen**
<https://sede.administracionespublicas.gob.es>



ZERBITZUAK ARAUTZEN DITUEN

OINARRIZKO ARAUTEGIA

Legezkotasun-printzipioa da Administrazioaren baldintzarik nagusienetakoa, hau da, erakundea ordenamendu juridikoa osatzen duten lege eta arauen menpean egotea. Gomendagarria da datozen lege-testuak kontsultatzea bertsio bateratuaz eta behar bezalako eguneratuak.

Jarraian Ordezkaritzaren zerbitzuak antolatzeari eta emateari eragin dizkieten arau nagusiak aipatzen dira:

Aplikazio orokorreko arauak

- Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 27koa.
- Azaroaren 26ko 30/1992 Legea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa.
- Apirilaren 4ko 5/2002 Legea, Probintziako Aldizkari Ofizialak arautzen dituen.
- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-dekretua, Sektore Publikoko Kontratueta legearen Testu berritua onartzen duena.
- Abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege-dekretua, Zehatzeko ahala erabiltzeko prozedurako Araudia onartzen duena.
- Martxoaren 26ko 429/1993 Errege-dekretua, Ondare-erantzukizunari buruzko Prozeduretako Araudia onartzen duena.
- Maiatzaren 7ko 772/1999 Errege-dekretua, Estatuko Administrazio Orokorrari eskabideak, idatziak eta jakinarazpenak aurkezteko, agirien kopiak emateko eta jatorrizko idatziak itzultzeko era arautzen duena, bai eta erregistro-bulegoetako erregimena ere.
- Otsailaren 21eko 209/2003 Errege-dekretua, non erregistroak eta jakinarazpen telematikoak arautzen diren, bai eta herritarrek aurkezten dituzten ziurtagiriak ordezkatzeko bide telematikoak erabiltzea ere.
- Uztailaren 29ko 951/2005 Errege-dekretua, non Estatuko Administrazio Orokorraren kalitatea hobetzeko eremu orokorra ezartzen den.
- Apirilaren 28ko 522/2006 Errege-dekretua, non Estatuko Administrazio Orokorreko eta bere lotutako edo menpeko erakunde publikoetako administrazio prozeduretan nortasun agirien fotokopiak emateko beharra kentzen den.
- Apirilaren 28ko 523/2006 Errege-dekretua, non errolda-ziurtagiria helbidea eta bizilekua frogatzeko agiri gisa Estatuko Administrazio Orokorreko eta bere lotutako edo menpeko erakunde publikoetako prozeduretan emateko beharra kentzen den.
- Abenduaren 9ko 19/2013 Legea Gardentasun, Informaziorako sarbide eta gobernu onari buruzkoa (2013ko abenduaren 10reko EAO 295 zk.).

Arau antolatzaileak

- Apirilaren 14ko 6/1997 Legea, Estatuko Administrazio Orokorraren Funtzionamenduari buruzkoa.
- Otsailaren 9ko 208/1996 Errege-dekretua, Administrazio informazio eta Herritarrentzako Arretako Zerbitzuak arautzen dituena.
- Abuztuaren 1go 1330/1997 Errege-dekretua, Gobernuaren Ordezkaritzetako zerbitzu periferiko eta egituretako integrazioari buruzkoa. Eta 1997ko azaroaren 7ko Presidentetzako Ministerioaren gindua, lehen aipatutako Errege-dekretua garatzen duena.
